

105. zk.
2001eko iraila



Gasteizko Euskaldunon Aldizkaria












RAFA TEJA ATEVICK.

4x3

HILABETE HONETAN 3 LIBURU ORDAINDU ETA 4 ERAMAN (merkeena dohain)

albeniz liburudenda

Benito Ginea, 2 - Tfnoa. 945 25 75 14 • 01003 GASTEIZ



105. zk. 2001eko iraila

LITERATUR ALEA. BERTAKO EUSKAL IDAZLEEN OMENEZ

• **GAIA: GASTEIZ**

• **PARTEHARTZAILEAK: BERTAKO 7
IDAZLE ETA BERTAKO 3 IRUDIGILE**

*Gaia Gasteiz izaki bertako 7 idazlek izkiriatu eta Geu aldizkariari pasatutako narrazioak, ipuinak eta poesiak (denetik bildu da: testu argitaratuak, argitaragabeak, irakurriak, argitaratuak baina ale honetarako moldatuak, ale honetarako espreski idatziak...) dakarzkizuegu oraingo honetan guziora gozamenarako...

*Eta hitz hauek guztiak irudiz lagunduta ageriko zaizkigu...




GEU Elkartearen ekimenez egina
Erredakzioa: Pedro Asua, 2 - 3.a •
Tfnoa. eta Faxa: 945 22 21 53 • e-mail: geugaste@gm.es

Zuzendaria: Estitxu Breañas Glz. de Zarate. Erredakzio-batzordea: Leire Lopez de Aberasturi, Edorta Sanz, Edurne Begiristain, Estitxu Breañas eta David Alvez. Erredakzioa: Leire Lopez de Aberasturi, Itziar Uriarte, Edurne Begiristain, Josune Velez de Mendizabal eta Ainhoa Ferron. Argazkiak: Edorta Sanz. Bestelako irudiak-bilaketa: E.B. eta DAV. Testuen orrazketa: E.B. Maketa: Dalvez. Komikia eta logoa: Iñigo Sarasola. Publizitatea eta Banaketa: Edurne Begiristain. Sustapen-harpidetza saila: E.B.Z., Edurne Begiristain.

Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati) • Ale Kopurua: 2.500 - LG: VI-582/92 - ISSN: 1133-0988 -
Franko Inundua 48/27 zenb. Aldizkari hau paper ekologikoz egina dago. Geu (Gasteiz) hilabetekariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.



Eusko Jaurlaritzako
Kultura Saila



ARABAKO EUSKAL HOTSAK
Antecedentes del Euskera en Alava

GOPEGI:

Irailak 6 - 16

ZUHATZU KOARTANGO:

Irailak 19 - 30

ALE HONEN OSAGIAK, BERAZ:

• **AURKEZPENA LITERATUR
MUNDUA ETA BERTAKO
IDAZLEAK ONDO BAINO
HOBETO EZAGUTZEN DITUEN
MIEL ANJEL ELUSTONDORREN
ESKUTIK**

• **IDAZLEAK:**
LOURDES OÑEDERRA
IBAN ZALDUA
GERARDO MARKULETA
ANA ARREGI
RIKARDO ARREGI
KIRMEN URIBE
PATXI ZUBIZARRETA

• **IRUDIGILEAK:**
IÑIGO SARASOLA,
AGURTZANE VILLATE
MIKEL VALVERDE

**GUZTIOI ESKERRIK ASKO
PROIEKTU HONETAN ESKU
HARTZEAGATIK!!!**

**Eta esker bereziak GERARDO
MARKULETARI ale hau
prestatzeko emandako
laguntzagatik**

Azala:

RAFA TEJA ATELIER



Arantza Arregui

Ramiro Maeztu, 1

Tfnoa. 945 13 33 59

AUTO-FLAJELAZIORAKO ZARTAILUA

Wimbledon tournament-aren garaia. Han ere, eta non ez, estatubatuarrak ari dira; eman dezagun, Lindsay Davenport. Honen argazkia dakar egunkariak. Mingaina kanpoan duela ageri da neska motza, jokaldia eginda. Irakurleak ez daki Lindsayk puntua, set-a edo match-a jokatu duen, ezta irabazi ala galdu duen ere. Dena delakoa jokatuta ere, neke izan duela igartzen dio irakurleak, hortxe aski, eta asko. Ez da, haatik, nekerik argazkiari oina jarri dion kazetariaren kopetan: "Lindsay Davenport, mihia ateratzen, tanto bat egin ostean".

Dio Iñigo Aranbarrik Hitzak eta giltzak lan berritsuan hitza zikintzen lan egiten dutela albis-tegiek, "errepikapenaren fabrika ilun horiek". Aldi berean, bat egiten du Bernardo Atxagak behin edo behin esanarekin: poesiaren eginbeharra hitzak garbitzea da, eleei zarata kentzea. Horrexek abiarazi nau "idazle" hitzaren esanahi bila, bihurri abiarazi ere, deabruaren bidean jarririk lehenik.


Ambrose Biercek ez dio idazleari errukirik. "Idazluma, iz. Antzarak ematen duen eta norma-lean asto batek erabiltzen duen tortura-tresna. Antzara-lumaren erabilera hau zaharkitua da, baina haren gaurko baliokidea, luma estilografikoa, betiereko erabiltzaile berdinen eskuetan dago". Antzara-luma, estilografikoa, boligrafoa, ordenagailua... ez dago alderik.

Sarrionandia ere ez da amutsa. "Idazlea. Idazlea izateko imajinazioa behar da. Esan nahi dut: imajinazioa behar dela norbere burua 'idazletzat' hartzeko" dio iurretarrak ondoezik.

Truman Capote, gaiaren gainean hegaka: "Jainkoak dohain bat ematen dizunean, zartailu bat ere ematen dizu; eta zartailu hori auto-flajelaziorako besterik ez da. Egun batean idazten hasi nintzen. Abentura-istorioak, hilketa-misterioak, komedia satiriko laburrak, antzinako esklaboek eta Gerra Zibileko beteranoek niri kontatutako ipuinak idazten nituen. Dibertigarria zen oso... hasieran. Ongi idaztearen eta gaizki idaztearen arteko aldea aurkitu nuenean bukatu zen festa, eta gero are aurkikuntza asaldagarriagoa egin nuen: ongi idaztearen eta benetako artearen arteko aldea; sumagaitza, baina izugarria. Horren ondoren, zigorra zirti-zarta hasi zen."

Hortaz ez du ematen idazleek lantegi erraza dutenik. Ezta Gasteizkoek ere. Gerardo Markuleta, Ana Arregi, M.L. Oñederra, Kirmen Uribe, Patxi Zubizarreta, Iban Zaldúa, Rikardo Arregi, Jon Benito, Bernardo Atxaga, Pedro Diez de Ultzurrun, Mikel Garmendia, Koldo Biguri, Mikel Reparaz, Kepa Murua, Joxe Arratibel, Xabier Olaso, Txabi Arnal Gil, Karmele Jaio, Jon Suarez, Xabier Etxaniz, Manu Lopez... literatura lanak moldatzen dituzte.

Antzara-lumaz ari da Ambrose Bierce.



Eta antzara txuri baten lumaz Bernardo Atxaga:

Esaten du ene hiztegi batek
desolamendu hitza latinezko
"Desolatio" hartatik datorrela
Jenitiboz "desolationis"

Dio baita ere mila seirehun eta
hamabigarren urtean sortu eta
idatzi zela lehengo aldiz
antzerra txuri baten lumaz

... bere hiru esanahiak direla
"Bakardade, ruina, hondamen"...


baino ordea ez dio ezer
kaletik doan
jendearen
bihotzetaz

baina ordea ez dio ezer
gure bihotzaz
zutaz eta nitaz
gartzela edo
koarteleetako
patiotaz...

Eta Ambrose Biercek idazlea asto. Eta tortura-tresna gogoan. Sarrionandia, imajinazioa. Truman Capote, eta zartailua.

Ambrose Bierceren idazleak darabilen antzara-luma berdinez idatzi zuen Bernardo Atxagarenak "desolatio" hitza lehen aldiz, mila seiehun eta hamabian. "Bakardade, ruina, hondamen". Eta bakardadea, idazlearena.

MIEL ANJEL ELUSTONDO



GEU aldizkarian iragarritz, euskara bultzatu.
Mila esker!! Iragar zaitez: 945 22 21 53

ZULOA
I R U D I A

KOMIKIAK

IRUDI LIBURUAK

Hedegile kalea (Correría), 21
 Tel./Faxa. 945 26 15 47

SUMENDI
Liburudenda
Narratiba eta
Poltsikoko liburuak

Foru kalea, 20 - Tfnoa. 945 14 23 52

BARRA
TABERNA
 Eguerditan, astaleneetik ostiralea
JANTOKI
BEGETARIANO
 SAN FRANTZISKO XABIERKOAREN KANTOLA, 4
 01001 - GASTEIZ
 TEL. 945 27 68 33

MIKO
Izozkiak

Obren egite
 eta zuzentzea
ALTUNA Estudioa
 "Azterlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"
 Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa
 Florida kalea, 9 behea - 01005 GASTEIZ
 Tfno./Faxa: 945 14 02 17 • Mobila: 639 81 51 30

azkarprint
 imprenta / inprimategia
 Helbide berria...
Landazuri, 7
 ♦ INPRIMATEGIA ♦ Landazuri, 7 - 945 23 30 01 - GASTEIZ

ARANBIZKARRA
ZURE
AUTOESKOLA!
 Valladolid kalea, 16
 Tfnoa.: 945 28 28 39
 01002 Gasteiz

Multilens Pack Berria
Eta gainera, bidai POLTSA BAT OPARI
 Multipackean hauek sartzen dira:
 Hilean behin aldatzeko Multilens lenteen 2 kaxa, Multidisoluzio bakarreko
 edo Multibio Pluseko 2 pote eta lenteak gordetzeko 2 kutxatila.

6 HILABETERAKO
UKIPEN - LENTEAK
14.900 PTAN
BAKARRIK
 89,55€

MENDIAOPTIKA
 DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS
 Andre Maria Plaza
 Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

RAUSCH & LOMB **CIBA Vision**
 3 hilabetean ordaindu errekararik gabe
 www.multiopticas.com


3 hilabetean ordaindu errekararik gabe
 www.multiopticas.com

Promozioak 01/08/31ra arte edo opariak bukatu arte iraungo du.

Tabernakoa



irudiak: MIKEL VALVERDE



Lourdes Oñederra



Tabernakoa

Donostiako taberna bat. Eguerdi aldea. Tabernaria bakarrik dagoen gizon bati hurbiltzen zaio barraren beste aldetik. Ezaguna bide du egiten dion agurratik. Bezeroa pozik dago lana duelako, aukeran gehiegi. Tabernariak esaten dio ez dela hori gauza arruntegia gaur egun eta suertea duela. Ez omen da suertea bakarrik, bezeroak esaten duenaren arabera. Nahi dunak, saiatuz gero, aurkitzen omen du, beraien lantegia frogatzen. Beraienean lana badago, gainera, beste guztientzat ere etorriko omen da, gainera. Inportantea, nonbait, bere lan hori, inportantea edo oinarritzkoa, behintzat. Txarrena, ia-ia gauza txar bakarra, dio tabernariak, etxetik urruti ibili behar, Donostiatik kanpo. Bai, konforme dago bezero potokoa ere, hori da alde txarrena, Gasteizen egon beharra aste egunetan bederen. Ahal duen guztietan etortzen dela esaten dute ia batera tabernariak eta bezeroak, koruan bezala, baina tabernariak bere-berea den zerbait eransteagatik (zalantzarik balego ere) esaten du bere koinata ere horrela ibiltzen dela: ostiral iluntzean Donostiara eta igandean, ia negarrez, berriz ere Gasteiza.

- Hau bezalakorik ez zegok bizi-tzeko, hori egi egia dek -bezeroak- Gasteizen txikiteoan ere ezin haiz ibili.

- Hori entzun diat, bai, han tabernak-eta tristeak direla.

- Egon ere ez zegok. Honelako taberna bat han? -dio bezeroak aurrean dituen gildei begira- ez ta pentsatu ere. Han kafetegiak eta horrela.

- Leku dotoreak.



mikel vahede 2001



- Bai, dirua zebilek, Gobernuko jendea eta horrela, badakik. Horiek eraman ditek haruntza dirua. Denak traje eta korbatakin ibiltzen dituk, ez dek kalean jende normalik ikusten, gu bezalako jende normalik esan nahi diat.

Nik bezero potokoaren antezko txamarrari erreperatu nion nahi gabe.

- Ez, e? Pobreak egongo dituk ba.
- Bai, klaro, oso pobreak, ijitoak-eta.
- Kastellanuak.
- A, hori bai, han ez dek batere euskeraz aditzen kalean.
- Nahikoa lan badezue bai.

Segitzen du bezeroak esanez bera ohitua dagoela (desgrazi horietara, pentsatzen dut nere artean) luzaroan Valentzian ibili zelako eta hango jendea ere oso Gasteizkoaren antzekoa zelako. Berak, desde luego, ez duela asteburu bat Gasteizen pasa eta, ahal duen bitartean, ez duela pasa ere egingo. Haurrak ere ohituta daudela eta pozik etortzen direla amonarengana. Ez du esaten, baina pentsatzen dut nik amona ere horren pozik egongo ote den ala astebururen bat horrenbeste bazkari prestatzetik libratzea eskertuko ote lukeen.

Dudarik gabe nere laguna ez dator berandu, besterik gabe ez dator. Gilda eta kaña ordaintzen ditut eta alde egiten dut. Bezero potokoari begiratzen diot irtetzerakoan, berak neri ez, konzentratua dago bizitzari, benetako bizitzari buruzko bere diskurtsoan. Ikusi ote dut nik aurpegi hura inoiz Gasteizen ala bere eta nire Gasteiz bi hiri ote dira.

*Euskadi Irratian irakurritako testua

NONBAIT

ZURE
EUSKAL
DENDAK

Kamisetak: Kukuxumusu, Kot, Maddi, Barabú... **Euskal oihalak:** mantelak, zapiak...

Zeramika, portzelana, zilarra - Opariak eta euskal oroigarriak

Loma Jeneralaren plaza, 5 eta Mateo Moraza, 7

Tel./faxes: 945 232229 • nonbait@nonbait.com

GASTEIZ

BUZTINTZA
KERAMIKA TAILERRA
KERAMIKA HERRIKOIA
ETA BERRIA
HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ

JANTZI
ETA
OPARIAK

Aiztogile kalea (Kutxi), 27
Tfnoa: 945 26 07 10
GASTEIZ

AMILAMIA
arropa eta osagarriak

Pintore kalea, 17
tfnoa:
945 27 40 09
GASTEIZ


arropa eta osagarriak
HEMEN DUZU ESPERO ZENUENA!
Pintore kalea, 23 • Tel. 945 28 18 38


Hegoamerikako
jantzirik ederrenak
Pintore kalea. (S. Frantzisko kontoiko ertzean)
Tfnoa: 945 25 03 52

Confecciones
Pinedo
JANTZIAK
San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ
Tfnoa.: 945 23 39 90

PLATER MIMATUAK...
EZ ZAITEZ GERA GURE KARTA
ETA MENU BEREZIA DASTATU GABE!!!

Jatetxea - Taberna
Unai eta Patxi Fernandez de Retana
Zerkabarren kalea, 18 • GASTEIZ
Telefona: 945 26 38 74

vitrales

BEIRATE
ESTUDIOA
MIKEL DELIKA
Txikita kalea, 1
Tfno. 945 14 64 10
GASTEIZ

Argazki - Estudioa
Erramun
Heracio Fournier, 23
Tfnoa: 13 71 02
01006
Askatasun kalea, 5
Tfnoa: 26 19 91
01004

HEGOALDE
Euskaltegia

Matrikula zaitzez !!
Jose Lejarreta 9 behea
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ

ARTEPAN

Artisau
Okindegia eta
Goxotegia
Jesús Guridi kalea, 2
Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

RAFA TEJA ATELIER

"Zetazko eta
kotoizko ebunak
eskuz margotuak"
- ZAPIAK -
Arantza Arregui
Ramiro Maeztu, 1 • Tfnoa.: 945 13 33 59

Adurtzako auzoan



irudiak: IÑIGO SARASOLA



Iban Zaldúa



Adurtzako auzoan

Jon paseatzera irten da. Azken aldi honetan, pilula-dosia jaitsi diotetik, maiz uzten diote kalera ateratzen, batzuetan egun osorako. Sakelako diru pixka bat ematen diote, menuren bat bazkaltzeko haina, eta afalordua arteko askatasuna eskaintzen diote.

Gasteizko erdigunea saihesten saiatzen da beti, oinezkoen esparruak bereziki: ez du aspaldiko adiskide eta ezagunekin topo egin nahi. Eta orain arte ez du inor ikusi, edo inork ez du bera ikusi. Izan ere, lehen baino lodiago dago, puztuago. Lagunek ez dute jadanik ezagutzen, apika.

Gaur bere auzo zaharrera joatea erabaki du, Adurtzara. Urte eta erdi egin zuen han, Marirekin batera alokatu zuen aurreneko pisuan; ondoren alde zaharrera aldatu ziren. Auzo proletario bat zen Adurtza, eta hala da oraindik: etxe merke eta zapalak, Mesetako ibaiaren izenak dituzten tabernak, lantegietako hesi luzeak, belarrik gabeko parkeak.

Halere, asko aldatu da auzoa. Hamahiru urte igaro dira. Asfalto soilez zolatutako espaloiak, baldosaturik ageri dira egun. Langile eta ikasleentzako Hogar Alavés egoitza merkearen lekuan babes ofizialeko etxe bat ageri da. Goizeko zortzietarako bideo pornoak eskaintzen zituen taberna, izokin-kolorez margotu, eta dastaleku bihurtu dute. Kale-kantoiko gozodenda txikian, ordea, ez da aldaketarik somatzen. Behin batean Bernardo Atxaga ikusi zuen bertan, ogia erosten; Jonek irakurri berria zuen Obabakoak, baina ez zitzaion ezer esatera ausartu. Orduz geroztik, maiz itzuli zen gozodenda hartara, alferrik baina: ez zuen topatu inoiz gehiago.

Bere antzinako etxera hurbildu da Jon. Berdin-berdina dago. Hantxe ikusten da, oraindik, "Instituto Nacional de la Vivienda"-ren plaka, uztarriaren eta gezien ikurraz apaindua. Bere pisu ohiko leihoak zabalik daude, norbait bizi den seinale. Kaleko atea irekita aurkitu du, eta ataria garbitzen ari direla konaturatu da. Eta Jonek gogoratu du nola egiten zioten barre garai haietan, eskailera garbitzen zuen etxeko gizonetzko bakarra zela eta. Tira, ez zioten barre egiten, ez aurpegira behintzat, baina hori sentitzen zuen bizilagunen batek topatzen zuenean lan horretan ari zela.

Atarira sartu da, eta Domingo ikusi du zoruko terrazoa lanbasaz garbitzen. Domingo laugarren solairuan bizi zen, eta etxe ondoko ile-apaindegian egiten zuen lan; oso hitzuna zen. Erosoa egiten zitzaion Joni ile-apaindegi hartara joatea, ez baitzuen ia ezer esateko ahaleginik egin behar: Domingok motzaldi guztian zehar hitz egingo zuen, etengabe, futbolaz zein Tourraz, politikaz zein telebistaz. Zer esanik ez, trufati begiratzen zioten gizon haietako bat zen Domingo.

Une batez gelditu da Jon, atari garbitu berriaren barruan oin bat duela; hobeto pentsatu du, eta atzera egitera doa. Ez daki zer esango dion, eta



tupustean ihes egin dio bere antzinako pisua zertan den begiztatzeko irrikak. Baina ezagutu du Domingok: "Hara, Anabitarte jauna da eta! –aspaldi da Jonek ez duela bere abizena inoren ahotan entzuten–. Urte mordo bat da, ezta?". Jonek ez du txintik ere esan behar, Domingok jarraitu baitu, gaztelaniaz beti: "Ikusten duzu, ba! Jubilatua, eta eskailera garbitzen. Bai, jauna, ile-apaindegia itxi behar izan nuen, nigatik hantxe izango nintzen oraindik, baina gero eta jende gutxiago etortzen zen, eta andreak ixteko esan zidan, ez zuela merezi... Eta orain bera erdigune aldera joaten da goizero, erakusketa bat dela, hirugarren adinekoen ikastaro bat dela, eta ni hemen, harrikoa egiten edo, gaur bezala, ataria garbitzen... Hori bai, primeran geratu zait, ez duzu uste?". Eta hamar minutuz edo ordu laurden batez hitz egiten jarraitu du, ezkondu diren seme-alabez, etxebizitzaren prezioaz, Alavesaz, Benidormera egin zuten azken txangoaz.




Adurtzako auzoan

Jonek agur esan dio haien antzinako pisua erosi zuen bikoteaz zer edo zer esaten hasi zaionean, edo Mariz galdetu dionean —"bai, kontxo, zure emaztea, edo zure andregaia... tira, zurekin bizi zen neska txiki hura..."—, auskalo. Birritan esan dio badoala, eta ezetz, estimatuta dagoela baina ez duela astirik trago bat hartzeko, edo pisu ohia ikusteko, presaz dabilela, eta pozik dagoela Domingo osasuntsu ikustez, eta badoala, emateko emazteari goraintziak.

Ia-ia ihes egin du Domingorengandik, baina mantso abiatu da auzoko kaleetan barna, patxada estrainio batek harrapatuta. Denbora luzea du itzulera-ordua iritsi arte. Aldizkari-saltoki bat dago lehen arraindegia zegoen izkinan, eta zenbait banketxe-sukurtsal berri. Kendu dute kale erdiko kiosko hura. Eta baita "Independentzia eta Sozialismoa" aldarrikatzen zuen pintada erraldoia ere. Lehen aparkatzeko leku gehiago zegoela esango luke Jonek.


Bai, zalantzarik gabe, asko aldatu da auzoa. Izugarri.

*Narrazio honen bertsio bat El País-en argitaratu zen; hemen aurkezten den ipuina eguneratua eta pittin bat luzatuta dago, eta hobeto girotuta, alearen espezifikazioei erantzuteko



ASOLIA
illegible

poesia



Esan

berriiz


esan



*...beti dabil
hiriko kaleetatik
arrotzen bat...*

Ana Arregi



*... Bizi izan naizen
hiri guztietan bazen
mugaz bestaldeko
auzorik. Maite izan
ditudan hiri guztie-
tanbazen mugarik
gabea auzorik...*



Gerardo Markuleta


*... pentsatu dut
hutsala dela guztiz
joan denaz idaztea...*

Rikardo Arregi



*... Ezagunak dira
Gasteizko eskalerik
gehienak. Iharra da
bata, motza bestea...*

Kirmen Uribe



Gerardo Markuleta

Agurtzane Villate

Hiri bat ez da hiri bakarrean sartzen

Bizi izan naizen hiri guztietan
bazen beti gizon bat leihoan biluzik, erretzen;
adarkar urdinen bat, argiaren bideak galdurik;
eta hamazazpi urteko neskatxak, neba-maitasunaren eske.


Maite izan ditudan hiri guztietan
bazen axolarik gabeko gauzez
—gutun tuntunak, hitz gogoangarriak—
arreta handiz arduratzen zenik;
eta ordurako ez gazte ez garbi ez abertzale zenik.

Bizi izan naizen hiri guztietan
bazen eginbeharraren iheslaririk,
eta su eta ur eske zebilen ezpain umel sukarturik;
bazen ibaien ur-ertzak biltzen saiatzen zenik;
mintzoekin biderketa eta mugekin kenketa egiten zuenik;
bazen sofa-oheak maite zituenik.

Maite izan ditudan hiri guztietan
bazen banatu arren bizialargundu ez zenik;
bazen dortokey azal lehorrean elai bana marrazten zienik;
eta bere harria murrailetik kendu eta zubian ezartzen zuenik.

Bazen beltzuririk, bazen agoterik, bazen ijitorik;
bazen amodio-istorio azkena beti bukatu berria zuenik;
bazen ahazturaren pardela egin eta desegin etengabe zebilenik.

Bizi izan naizen hiri guztietan
bazen mugaz bestaldeko auzorik.
Maite izan ditudan hiri guztietan
bazen mugarik gabeko auzorik.



Mandaturia, argazki desenfokatu batekin

Irribarrea jasotzea edo
ondo enfokatzea hautua,
zirt edo zart behar zuen, eta horra:
irribarre zoragarria
zoragarriro desfokatua.

Altsasuko gazteluan,
printzesa artean,
esnatu beharrean
farozaingaren ajeak
goibeldu dit goiz-argia
Gasteizko etxe txokoan,
muinoko alde zaharrean.

Barteko ozpin tantanak
maionesa eginik, baina
ezti tanta bakoitza
ondo gogoan gordea:
ezti horrexetatik eginak dira,
ez gaitezen engaina,
bizi oasietako
hainbat ur, hainbat harea.

*Hiri bat ez da hiri bakarrean sartzen: beste zaharrago baten bertsio berria. Mandaturia, argazki desfokatu batekin: argitaragabea



Ana Arregi

Iñigo Sarasola



Hiri arrotza

S-en nago.

Hiri arrotza da.

Etxeak gorriak dira,
adreiluzkoak.

Lantegien kebide luzeetatik
ateratzen den hauts-hodeien atzean
eguzkia egon liteke,
eta bazter bakoitzean
Charles Dickens-en txiroak
egon ere,
garaiak aldatu izan ez balira bezala.

G dut buruan.

Nire hiria da.

Etxeak maitagarriak dira
dena txukun:
parkeak lorez jantzita,
udaberrian modan dauden koloreekin,
eta musika ederra
bazter guztietan.

Hiria pottokiena izan zitekeen,
marrazki bizidunetik kanpo
honelako tokiak egongo balira bezala.

Baina arrotzatsuna
sentimendu bihurgarria da;
beti dabil hiriko kaleetatik arrotzen bat.

*Argitaragabea eta espreski ale honetarako idatzia



Rikardo Arregi

Agurtzane Villate

Onassis Taberna


And, little town, thy streets for evemor
Will silent be: and not a soul to tell
Why thou art desolate, can e'er return

John Keats


Orain dela egun pare bat
Zapa kalean nenbilela
taberna baino etxea
genuen zulo ilun hura
suntsiturik ikusi nuen
-aurrera doa hirigintza-.
Hondakinetan sumatzen da
oraindik non zegoen barra,
non komuna, non biltegia,
non banatzen zen zoriona,
nora zeraman eskailerak.
Nik euripean harriturik
pentsatu dut gai ona zela,
erraza eta aproposa,
iragan urrunaren minaz
poema bat izkiriatzeko;
Ponpeia gogora ekarri

adibidez, edo Erroma
-aipuak agian latinez-,
eta poema ederrena
paratu, ele leun ilun,
ubi sunt gaiaren gainean.
Edo, demagun, eskutitz bat,
Fabio lagunari gutuna,
epistola klasikoena,
tabernaren hondamendian
munduarena islatzeko.
Malditismo puntu bat, noski,
beharko luke bukaeran,
Bukovski aipatu, Amsterdam,
kartzela eta heriotza,
eta gainerako guztia.
Baina gero, ene bidea
segitzean –euri gehiegi
hausnarketa poetikoak
atxiki ahal izateko-
pentsatu dut hutsala dela

guztiz joan denaz idaztea,
eta ez dudala gogorik
iraganaren gorespina
egiteko. Ez baitut inoiz
sinetsi -fedegabe hori-
iragana oraina baino
zoriontsuagoa zenik;
eta jakin, ongi baitakit
zein ondo apaintzen ditugun
atzoko oinaze garratzak,
zein ondo apaintzen ditugun
ustezko zorion zoroak.
Horregatik, kontsideratuz
bizien artean latina
arras ezezaguna dela
-hildakoei berdin zaie-
askoren ustez heroikoak
izan ziren denbora horiek
ahazmenari opa dizkiot
lasai, pena handirik gabe.



*Onassis taberna poema Kartografia (Alberdania, 1998) liburuan agertu zen lehendabiziz



Bizikleta eta eskalea

Londreseko West End-eko antzoki batean "Money money" izeneko antzez-lana taularatzen zuten. Antzokiaren atzekaldeko karrika estuetan antzez-lanaren afixak zeuden. Afixetan, hiru lau aktore ageri ziren, aurpegi alaiekin. Goian behean euria zuten, baina diru euria. Afixeen azpian eskale bat espaloian etzanda. Hango gehientsuak bezala, lozaku barruan, lo.

Londreseko irudi hura etorri zait burura Gasteizen. Han ere badira eskaleak. Ezagunak dira Gasteizko eskalerik gehienak. Iharra da bata, motza bestea. Gehientsuenek bizarra dute. Barbone esaten diote bizardunetako bati, italiarazko izena emanez, izan ere italiaraz barbone hitzak arlote esan nahi du, arlo-teek mundu zabalean izan ohi duten bizarrarengatik.

Bada Barbone hori gurutzatu dugu kalean, eta hari begira geratu gara une batez. Erakusleiho baten kontra zegoen bizikleta bati erreparatu dio. Urrats geldoz, oinezkoak errezeloz berari beha zeudela ohartu gabe, arlo-teak bizikleta goitik behera miatu du. Astiro astiro, erlojulari zahar bat balitz bezala. Bizikletak ez du izan itxura txarrik, mendikoa zen, berri-berria. Gainera, guztion harridurarako, giltzarraporik gabe zegoen.


Ez dizuet esan baina bizikleta utzita zegoen erakusleihoa inmobiliaria batetako da. Erakusleiho barruan, eskaintzen txartelak eta lautadako herri batean egin



beharreko txalet auzo baten maketa bat ere badago. Agi denean, bizikletaren jabea inmobiliaria barruan egon da. Etxe berria erosi beharrean da eta inmobiliariako langile dotoreak eman dizkion azalpenak entzun ditu arretaz. Sekulako pagotsa: Alde Zaharra, berrogei metro karratu, hogeita hamar milioi.

Barre egin dut neure golkorako, eskaleak bizikleta zegoen tokian utzi eta alde egin duenean bere zakurrari hots egin eta gero. Begira geundenon gehienen ustearen kontra ez du bizikleta lapurtu.

Ez nuke gauza bera esango inmobiliaria barruan gertatu denari buruz.



*"Javier Villafañe ihes egin zion esatear
zegoen hitzaren bila dabil alferrik.*

*Nora joango ote zen mihiaaren puntan zeukan
hitz hori? Geratu nahi izan ez zuten hitzak
elkartzen diren lekurik egongo ote da?*

*Hitz galduen erreinua? Joan ziren hitzak,
non egongo ote dira zain?*

Ventana sobre la palabra (V). Las palabras andantes. Eduardo Galeano



GASTEIZKO HERRIKO TABERNAK

ALDE ZAHARRA



Xabier

taberna

musika ona
eta giro ezin hobea
Aiztogile kalea (KUTXI), 23

**Euskara
bultzatu
nahi?...**

945 22 21 53

**BAR
KLAKÉ**

KUTXA, 2
TFNO.
143883



**"Zure ametsak egia
bihurtzen diren tokia"**

IBAIZAR BASERRIA, 4
SOJO-ZOLLO · 01478 ARABA
Tel/Faxa: 945 396 686
www.euskalnet.net/eskutxi
E-Mail: eskutxi@euskalnet.net

MERKURIO-KADIMIOAN
%0a

CEGASA PILAK
INDARTSUEENAK
ETA
EKOLOGISTENAK



CELAYA, EMPARANZA Y GALDOS, INTERNACIONAL, S.A.
Artapadura, 11 - Apdo. 355
Teléf. (945) 12 95 10 - Fax (945) 12 95 14 - 01013 VITORIA

ametsak

Kañamo Denda - Grow shop

C/ Herreria nº38 01001 Gasteiz
Tel-Fax.: 945 26 46 43

LIZARRALDE SOINYA

TXALAPARTA, S.L.

945 226 977

GASTEIZ

**SOINU PROFESIONALA • MEGAFONIA
ESPASIO HAUNDIEN SOINUZTAPENA**





APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ



arabarrok euskarari BAI



www.gazteabertzaleak.com



ERROTA

HORTZ KLINIKA

Julian de Apraiz, 1 – GASTEIZ
Tfnoa. 945 213 390 • Faxe. 945 213 390
e-mail: errotadental@euskalnet.net

Parisera bidean

irudiak: AGURTZANE VILLATE



Patxi Zubizarreta



Parisera bidean

RAMONEK AHOLKATU bezala, auto-stopean hartu ninduten bi gizoni gezurretan ibili nintzaian; Parisen nuen arreba bat bisitatzera nindoala esan nien, eta arrebak berak niretzako moduko lan bat aurkitua zidala. Ramonek hala aholkatua zidan; hobe nuela inorekin gehiegi ez fidatzea eta ene benetako egoeraren berri ez ematea.

Bi gizon gorbatadun haiek Donostiara omen zihoazen, lanera; baina lana aitzakia hutsa zen han ezagutzen zituzten bi neskatilekin "Larrua apur bat gozatzeko." Hastapenean gizonak berriketan joan ziren, eta aldian behin niregana jiratu, eta emakume arabiarrei buruzko galderak egiten zizkidaten. "Egunen batean nolakoak diren ezagutu beharko dugu ba." Bestalde, hiri izen hura birritan entzuna nuen; bai, oso oker ez banengoen, hantxe harrapatu zuten Abdelhadi (artean ez nekien ene lehendabiziko saiakera hartan lehenago gelditu behar izango nuenik).

Mirandan geldialdi bat egin genuen, gasolina hartzeko eta edari beroren bat sabeleratzeko, eta harrigarria egin zitzaidan, goizaldeko ordu haietan, kamioizale jendea filme porno bat ikusten egoitea. Horren ostean, atzera autoan sartu, eta abiatu egin ginen. Eta eguna zabaltzen eta Gasteiz hiriaren kanpoaldera inguratzen ari ginela, ustekabean poliziaren argi zuri-uridin mehatxukorra bistatu genuen.

—Heldu gaituk euskaldunen herrira —bota zuen gidariak, eta berehala—: Paperak-eta edukiko dituk, ala?

—Ez... —utzi nuen nik airean, lehor eta urduri.

—... —zerbait murduskatu eta une labur batez mekauenka aritu ostean, honela agindu zidan—. Tira, bihurgune horretan gelditzen naizenean hire puskak hartu, eta hor nonbait ezkutatu.

—Mila esker —esan nuen, baina ordurako autoa sirena zegoen tokirantza abiatua zen.

Artean toki izenik ezagutzen ez banuen ere, handik gutxira jakingo nuen Armentia zelaian agertu nintzela. Goiza garbi-garbia zen, sekulako hotza egiten zuen eta lehenbailehen hiri barrenera iristen saiatu nintzen. Oraindik ere oso gogoan dut, hotzak hilik, El Mentirón izeneko kafetegian sartu, eta kafesne bero bat eskatu nuela. Barrako opilak-eta ikusirik, zerbitzari pinpirin bati kruasanaren prezioaz galdegin nion; ez dakit zenbat erantzun zidan (hoge bat ogerleko?), baina nik, dirua ongi atxiki nahian, ez nuela nahi adierazi nion keinu irribarretsu batez.

Handik gutxira, aspertu gabe jendeari begira nengoela, hara non ekartzen didan, di-da, kruasan bat, sardexka, labana eta guzti, platerño batean! Alboetara begiratu azkar bat luzatu eta, "Dohainik da", murmurikatu zidan.

Komunera joan, eta ene burua ispiluan ikustean berehala ohartu nintzen: zurbil baino zurbilago, jertse fin bat baino ez..., oso itxura errukarria nuen. Hala baieztatu zidan geroxeago hurbildu zitzaidan gazteak ere.

—Egunon eta ongi etorri —diosala egin zidan arabieraz—. Algeriarra, marokoarra?

—Marokoarra —erantzun nion, eskaintzen zidan bostekoa onartuz.

Gisa hartan egin genituen elkarren ezaguerak; gisa hartan jakin nuen nolakoa izan zen Utmar tunisiar kaxkagorriaren epopeia (hitz hori Estherrek erakutsiko zidan), eta nola moldatzen zen bere eguneroko bizimodua aurrera ateratzeko.

—Edozein modutan, patataren bilketa hasi arte, gorria zagok. Orain tirriki-tarraka moldatu



beharko diagu, ahal dugun moduan... Bestalde, mukan gero eta kontrol estuagoa zagok.

Hitz eta pitz, goiz berandura arte ez ginen kafetegitik irten, eta, hango neskari esker oneko irriñoa eskainirik, Utmarrek (bestorduz Mahjubi zenak egin zuen bezala), hiriko bazterrak erakutsi zizkidan: Andra Mari Zuriaren plaza eta bilgunea, magrebiarrak elkartu ohi diren tabernak, garaje baten antza duen meskita bera, eta abarren abarra.

Egun hartan Utmarrek bere etxeraino eraman ninduen, beste sei magrebiarrekin Errekaleor auzunean alokatua zuten etxera. Eta harantza oinez gindoazela, berriro ere Mahjubi etorri zitzaidan gogora.

-Bai, motel, Errekaleor erdigunetik urrun samar zagok eta, noizbait, parrandan-eta, berandutzen zaigunean, etxera itzultzeko taxia hartu nahi bai, baina taxistek sarritan honela erantzuten zigutek: "Aukeran nahiago ez."

Eta nik Mahjubi gogoan, eta arabiarrek eta taxistak akabatu behar zirelako hura, eta...

Gasteizen emandako denboran Utmarrenean ostatatu nintzen.

Patxi Zubizarreta, Eztia eta ospina, Alberdania argitaletxea. Atal bat



Bacalao Giraldo

- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta
erosotasuna zure esku"



Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25

Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36 • Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza • GASTEIZ

IRUSTA

poteo eta pintxoak

TABERNA

ESPEZIALITATEA:

Patata tortila • Otartekoak

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 945 23 19 33
GASTEIZ



e g m
u n n
e u
k a
o

LA RIOJANA

jatetxea

on egin!

bokatak,
pintxoak,
kazulatxoak

Aiztogile kalea (Kurxi), 33 tfnoa. 945 25 02 39



Obdulio Lpz. de Uralde
Margolaria, 5

Tel. 945-22 65 47 • Fax. 945-26 50 16
01008 Vitoria-Gasteiz

GEU

**aldizkaria
etxean
jaso nahi?...**

...

945 22 21 53

Garagardotegia

ASTE OSOAN
IREKITA
(Astelehenak
izan ezik)

Gerentzia
berria

La Blanca

- * Oilasko erreak
- * Kazolatxoak

Tfnoa. 945 27 90 46
Herrandarren kalea, 82
Gasteiz

XIXILU
JATETXEA

AMARIKA PLAZA, 2
Tfnoa: 945 23 00 68 • GASTEIZ



Errege atea, 9 • GASTEIZ
Tfnoak: 945 25 05 30 / 945 25 66 85

EUSKAL LABELA LASAGABASTER

harategia eta urdaitegia

**Gasteizko
haragitegirik zaharrena**

Errege atea, 24
Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

Udaberria

euskaltegia

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65
Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33

**"Herri kirolak eta herri
jolasak kultura dira"**

K U L K I

Tlf.: 945.139.699

ZURE HARATEGIAK



Jose Luis

GARMENDIA

HARATEGIA-URDAITEGIA

Andaluzia kalea 13

☎ 945 28 79 42 · GASTEIZ

XABIER AIZPEOLEA

HARATEGIA

FLORIDA AZOKA 2 eta 3

☎ 945 13 24 48

ABASTOS AZOKA 2 eta 3

☎ 945 26 78 97



*gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak*



Zure denda erotikoa

SEX

PITILIN GORRI

Sexua
euskaraz
bizi



GASTEIZ
Tren geltokiaren ondoan

Tel: 945 15 42 60

DONOSTIA

OIARTZUN

adaka
madinabeitia

Floridako altxorra !

35



GORETTI
ILEAPAINDEGIA

Hedegile kalea (KORRE), 14

(San Migeleko pasabidea)

Tfno: 945 12 08 88 - 01001 - GASTEIZ



BITORIANO (Zuia • Araba) TEL. 945 43 00 73

MARRAZKIAK • KOADROAK

MOLDURAK

LAMINAK

zurbeltz

Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20



**Gure esker onik bihotzekoena
gugan sinetsi duten
euskaltzale guztiei!**

107 urtez Euskadiren esanetara!

guri ulertzeko

euskara ikasi ▶▶

A. Campion 948 22 22 46

Lesaka 948 63 77 96

Errioxa 941 60 10 87

Gasteiz 945 15 43 41

2, 3 eta 5 orduko ikastaroak
Maila guztiak. EGA, Mintza eta Sakontze

INFORMAZIOA

Errege-erregina Katolikoak, 15
Tlf: 945 28 89 22

Adriano VI, 18
Tlf: 945 15 43 41

Badaia, 25
Tlf: 945 24 49 05

MATRIKULAZIO EPEA: Irailaren 3tik 21era
HABEren diru laguntzaz antolatuta

**elkar ulertzeko
para entendernos**



ARTI
PEZU
JELRO
BAZKA
ZAPO
MIRAN
GAIEN
BURA
HETSA
TXUNDIAK
TXISTUL
ZAKI
TXIKI
ERAKU
SKETAK
BETRI
OKAI
KTRIXA



IRAILAREN 23, IGANDEA
23 DE SEPTIEMBRE, DOMINGO


CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



Arabako
Foru Aldundia
Kultura Saila



Diputación
Foral de Alava
Departamento de Cultura

AÑANAKO ESKUALDEKO
EUSKARAREN ALDEKO
VI. JAIA



VI. FIESTA POR EL
EUSKERA DE LA
CUADRILLA DE AÑANA

LOS ROTUROS

HOTELA TABERNA JATETKEA



BEREZITASUNAK

- Arkume errea
- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Bataioak
- Enpresa bilerak



Tlf.: 945.410.250

Errementari (Herreria) kalea, 10.

MAEZTU

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

e-mail: losroturos@teleline.es

web orria: usuarios.tripod.es/losroturos